




BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEAREN 2015eko JARDUEREN TXOSTENA




Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián


2015eko jardueren txostena




GIZA ESKUBIDEAK



OROIMEN HISTORIKOA



BAKEA



BESTELAKO EKINTZAK



Erakusketak



Hitzaldiak



Oroimen egunak



Kanpo jarduerak



Biktimei aitortza adieraztea



Proiekzioak



Argitalpenak




Topaketak, bilerak eta tailerrak



Prestakuntza, sentsibilizazioa eta balioetan oinarritutako hezkuntza



Elkarreentzako diru laguntzak



GIZA ESKUBIDEAK

Sentsibilizazio
eta kontzientziazioa

GIZA ESKUBIDEEN

XIII. ZINEMALDIA

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

2015eko apirilaren 17tik 24ra

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren XIII. edizioa 2015eko apirilaren 17tik 24ra izan zen. Giza Eskubideen inguruko gaiak lantzen dituzten film luzeak eta laburrak biltzen ditu Zinemaldiak, halaber solasaldiak eta beste jarduera batzuk: erakusketak, antzerkia, tailerrak...

17.000 ikuslek baino gehiagok parte hartu dute XIII. edizioan.

4 Sari banatu ziren Zinemaldian:

- Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria: Lourdes Portillo.
- Gazte Epaimahaiaren Saria Film Labur Onenari:) Christophe M. Saber-en Discipline (Suitza, 2014)
- Publikoaren Saria Film Luze onenari: Chiara Andrich eta Giovanni Pellegriniren Bring the Sun Home (Italia, 2013)
- Amnesty International Saria: Tonje Hessen Schei-en Drone (Norvegia-Danimarka, 2014)



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Erakusketa: Artea eta Giza Eskubideak / Victoria Eugenia

Artea eta Giza Eskubideak / Tailerra



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Erakusketa: Nazien presentzia Bidasoan. Aiete Kultur Etxea



Erakusketa: Comète, ihesbide sarea. San Telmo Museoa

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Haur eta gazteentzako emanaldiak eta Victoria Eugeniako errenkadak

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Antzerkia: Ez dira aspaldiko kontuak. Victoria Eugenia Antzokia



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA. SARIAK



Lourdes Portillo. Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria



Sarituak, Juan Karlos Izagirre eta Monika Basterretxearekin

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



HRFNren Giza Eskubideen Zinemaldien bilera, 2016 Bulegoko eta Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren kideekin



Solasaldiak. Nbuyu Kabunda eta Itziar Ruiz Jimenez



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Armeniar genozidioaren inguruko solasaldian parte-hartzaileak

ARTEA ETA GIZA
ESKUBIDEAK. HAUR
ETA GAZTEEN XI.
EKITALDIA

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Artea eta Giza Eskubideak. Haur eta Gazteen 11. ekitaldia

Urtero bezala, Giza Eskubideen atalak Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteentzako ekitaldia antolatu zuen. Helburua kultur aniztasunaren inguruan errespetua eta elkartasunaren balioei buruz hausnartzea izan da.

3.218 haur eta gaztek parte hartu zuten, eta bakarkako nahiz taldekako 2.900 lan inguru aurkeztu zituzten.

Lan guztien erakusketa ikusgai egon ze Victoria Eugenia Antzokiko erakusketa aretoan, apirilaren 19tik 25era.

Honekin batera, apirilaren 25ean, kultur aniztasunaren inguruko mural kolektibo baten tailerra antolatu zen, Ainara Azpiazu Axi ilustratzailearen laguntzarekin.


Sari banaketa Udaleko Batzar Aretoan egin zen, apirilaren 19an.



ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK



Sari banaketa, Udalbatza aretoan



ERAKUSKETA:
"EMAKUMEAK.
AFGANISTAN"

“EMAKUMEAK. AFGANISTAN” ERAKUSKETA

2015eko azaroaren 20tik 2016ko otsailaren 7ra

Emakumeak. Afganistan, Gervasio Sanchezen eta Mónica Bernaberen erakusketa da. 2009tik 2014ra bitartean ateratako argazkiek emakumeek pairatzen dituzten hainbat diskriminazio eta giza eskubideen urraketak islatzen ditu. Talibanek etxetik kanpo lan egitea, ikastea eta osasun laguntza jasotzea debekatu zieten emakumeei, Afganistanen agintean egon ziren aldirian.


Erakustaldi honetan ikusten da emakumeen aurkako indarkeria Afganistanen familian bertan hasten dela eta endemikoa dela, eta ez du zerikusirik talibanak agintean egotearekin edo ez egotearekin.

Erakusketen egileek hainbat bisita gidatu eskaini zituzten abenduan eta urtzehar Aiete kultur etxean. Gainera, hainbat ekintza burutu ziren erakusketaren inguruan.

Jarduerak Lankidetzaren bulegoarekin eta Euskal Fondoarekin batera garatu ziren.



Juan Ramón Viles, Giza Eskubideen zinegotzia, Gervasio Sánchez, Mónica Berbabé eta Juanma Balerdirekin



OROIMEN HISTORIKOA

KONTSEILUA. ERAKETA

Oroimen Historikoaren Kontseilua

Udalak Oroimen Historikoaren Kontseilua eratu zuen, gerra zibilean eta diktadura frankistan jazarpena edo indarkeria jasan zutenen aldekoa.

Kontseilua talde politikoek ordezkariek osatzen dute, baita gizarte erakundeek eta norbanakoek ere. Hauexek dira alor honetan lan egiten duten eta parte hartzen duten Donostiako herritar elkarteak: Aranzadi Zientzia elkarteak, Genozidio Biktimen elkarteak, Hamaika Bide elkarteak, Euskal Memoria Fundazioa, Donostiako Udaleko LAB sail sindikala, Aiete-Lantxabe auzo elkarteak eta Altunaberri elkarte kulturala. Horiez gain, garrantzi berezia duten talde hauek: Goldatu talde memorialista, EDE Fundazioa, Miguel Aranburu Gipuzkoako Historialarien elkarteak eta Valentin de Foronda Historiako Institutua. Baita garrantzi berezia duten pertsonak: Gotzon Garmendia Amutsastegi, Luis Castells Arteche eta Jose Antonio Rodriguez Ranz. Azkenik ere, bi norbanako hauek bozketaren bidez onartuak izan ziren: Felix Soto eta Jose Zato.



ERAKUSKETA

2015eko martxoaren 13an

Arbel beltza: Sasoi ilunak euskal hezkuntzan. Klausura

Arbel Beltza: Sasoi ilunak euskal hezkuntzan erakusketaren amaiera jendeari guztiz irekitako ekitaldia izan zen, oso berezia eta hunkigarria: Amets Arzallus, Petti, Olatz Prat eta Joxan Goikoetxeak saiorako bereziki sortutako bertso eta musika jarri zuten. Donostiako alkate Juan Karlos Izagirrek eta Aranzadi Zientzia Elkarteke Juantxo Agirre Mauleonek eta Juantxo Egañak ere parte hartu zuten ekitaldian.

Donostiako Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak elkarrekin antolaturiko proiektu honetan, abendutik martxora bitartean hiritarrek aukera izan dute hobeto ezagutzeko nolakoa izan zen Euskal Hezkuntza Sistema XIX. mendetik hasi eta frankismoaren diktadura arte. Erakusketa gelan ikusgai izan ziren arbelak, mahaiak, eserlekuak eta garai hartako materialekin batera, dokumental bat ere proiektatu zen.



Clausura de la exposición

ERAKUSKETA

2015eko martxoaren 17tik ekainaren 7ra

Comète: ihesbide sarea

II. Mundu Gerraren amaieraren 70. urteurrenarekin batera, San Telmo Museoa ikusgai egon zen "Comète:ihesbide sarea" ikus-entzunezko proiektu interaktiboa. Erakusketaren helburua Comète sarean parte hartu zuten herritarrak, bizirik dirautenak eta familiaratekoak gogora ekartzea da.

Elkarte zibil hau, Bruselan sortu zen 1940 urte amaieran. Erresistentziarako erakunde zibil franko-belgikarra izan zen, eta helburua II. Mundu Gerran naziak atzetik zituzten soldadu aliatuak gatazka eremutik ateratzea zen.

Europa okupatua zeharkatu eta gero, Euskal Herria zen igarobidea, Bidasoatik barrena nagusiki. Bidaiako puntu erabakigarri honetan euskal talde batek, mugaren bi aldeetan, era aktiboan parte hartu zuen.

1941 eta 1944. urteen artean, Comète erakundeak 800 iheslari inguru atzerriratu zituen. Bestalde, 3.000 pertsona anonimok parte hartu zuten sare honetan (1.700 agente eta kolaboratzaile) eta, horietatik, 700 inguru atxilotu zituzten. Bestalde, 290 bat fusilatu edo deportazioan hil ziren.

San Telmo Museoa, Bakearen Etxeak, Giza Eskubideen Zinemaldiak eta DSS2016k antolatu eta Morgancrea estudioak ekoiztutako ikus-entzunezko erakusketa. Ezkutuko sare honi buruzko 30 elkarrizketa eta dokumentazio berria eman ditu argitara.



J

ERAKUSKETA. NAZIEN PRESENTZIA BIDASOAN

2015eko martxoaren 27tik ekainaren 7ra

Nazien presentzia Bidasoan

II. Mundu Gerraren bukaeraren 70. urteurrenarekin bat eginez, garai hartan naziek Bidasoaren bi bazterretan egindako egonaldia eta jarduerak ikustarazten ditu "Nazien presentzia Bidasoan" 150 argazkiren bidez.

Aiete Kultur Etxean ikusgai izan zen erakusketa hau Juan Carlos Jiménez de Aberasturi historiagileak apailatu eta Morgancreak ekoitzi du.

Erakusketa ez ezik, bisita gidatuak, Jiménez de Aberasturiren eskutik, eta "The Last Passage" dokumentalaren proiektzioak ere antolatu ziren.



NAZIOARTEKO EGUNAK

TRANSEXUALEN, BISEXUALEN, LESBIANEN, GAYEN ETA QUEEREN ASKAPEN-AFEKTIBO SEXUALAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA

2015eko ekainaren 28an

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoa eta Donostia Kultura, Gehitu, AMPGYL, Chysallis, Garaipen EHGAM, Kitzikan, Donostiako Bilgune Feminista eta Medeak elkarteak, urtero ekainaren 28an egiten den Transexualen, Lesbianen, Gay-en, Bisexualen eta Queers-en askatasun afektibo-sexualerako Nazioarteko Eguna ospatzeko elkartu ziren.

Udalak kolore anitzeko bandera jarri zuen fatxadan eta baita autobusetan ere. Kursala kolore horiekin argiztatu zuen.



HAURREN EGUN UNIBERTSALA

2015eko azaroaren 20an

Haurren Egun Unibertsala zela eta, Haurtxoko eta Gaztelekuetan hainbat ekintza burutu ziren, garapen iraunkorraren, tolerantziaren, kultur aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruan kontzientziazioa bultzatzeko.

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen bulegoaren bitartez, eta Gazteria eta Kultur Aniztasuna bulegoen, Donostia Kulturaren eta UNICEFren laguntzarekin, azaroaren 20a, Haurren Egun Unibertsalaren eguna oroitu zuten udaleko hainbat espaziotan.

Helburu horrekin, Haurtxokoetan eta Gaztelekuetan UNICEFen "Denboraren kapsula" eta "Misio diplomatikoa" izeneko ekintzak burutu ziren.

Udal liburutegietan ere, "Ipuinaren ordua" izeneko saioa eskaini zen, haurren eskubideak ardatz hartuta.

Gainera, Kultur Aniztasunaren Atalarekin batera, Dar-Dar Gizarte Ekimenezko Kooperatibak, nerabeei zuzendutako bakarrizketa antzeztuak eta ikus entzunezkoak eskaini ziren hainbat ikastetxetan.



IHESAREN KONTRAKO MUNDUKO EGUNA

2015eko abenduaren 1ean

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak, ACASGI, EHGAM, GEHITU, HARRIBELTZA elkarteekin batera, Hiesaren Kontrako Munduko Eguna oroitu zuten.

Horrela, manifestazioa egin zuten kaleetan zehar eta Kalkutako Teresa Plazan, berriz, elkarretaratzea, HIESaren memorialaren ondoan. Bertan, manifestu bat irakurri zuten, "HIESaren eta horren estigma eta diskriminazioaren aurkako elkartasunaren beharraren gainean.

Horrez gain, Kurasaaleko argiak begizta gorriaz apaindu ziren eta ikur horren kartelak Udaletxeko fatxadan, udal ekipamenduetan eta hainbat garraio publikoetan ere jarri zituzten. Zinemak, hitzaldiek eta antzerkiak ere osatu zuten programazioa



Juan Ramón Viles zinegotzia, elkarten ordezkariekin


GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

2015eko abenduaren 10ean

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna (abenduak 10) zela eta, "Siriako Ahotsak", ekimen solidarioa antolatu zuten, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak, Donostia Kulturak eta Donostia 2016 Elkarrizketak ekimenak, CEAR Euskadi erakundearekin elkarlanean, Siriako herriari babesa eta elkartasuna erakusteko.

Programak honako jarduerak zituen: alde batetik, abenduaren 10ean "Syria Self-portrait, Silvered Water" filmaren proiektzioa eta Siriari buruzko solasaldia, Andoni Lubaki argazkilaria eta Patricia Bárcena CEAR-Euskadiko zuzendariaren eskutik; eta, bestetik, abenduaren 9an, kontzertua, Alepoko (Siria) ekialdeko musika folkloriko andalustarra Al Turaz Al Andalusi taldearekin.





BAKEA

HARRERA

2015eko urtarrilaren 30ean

Donostiako Memoriaren Erretratua. Eusko Jaurlaritza

Jonan Fernandez Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak, 1960 eta 2010 artean euskal kasuan bizitzeko eskubidearen aurka izandako urraketen udal erretratua eman zion Donostiako alkateari.

Juan Karlos Izagirrek eskerrak eman zizkion “hiri honetan zer-nolako sufrimendua egon den jakiteko balioko duelakoan. “Udala Donostiako Sufrimenduaren Mapa lantzen ari da, hainbat dokumentu ofizial eta ez ofizial oinarri hartuta, eta Eusko Jaurlaritzak landutako dokumentua mapa horren osagarri izango da”, alkateak esan zuenez.



Jon Albisu, Naiara Sampedro, Juan Karlos Izagirre,
Jonan Fernandez eta Aintzane Ezenarro

IKERKETA BEKA

Beka: Oroimena puntadez josi

“Oroimena puntadez josi: bortizkeria kolektiboa, bizikidetza eta bake kulturaren irudikapena” proiektuak jaso zuen Giza Eskubideen Atalak emandako ikerketa beka. 17.600 euro jaso ditu proposamenak lana burutu ahal izateko.

Guztira 10 proiektu aurkeztu ziren. Hautatutakoa Maitane Arnosok, Magdalena Bobowik-ek, Itziar Gandariasek, Miguel Angel Navarrok y Ainara Arnosok egin dute.



Saridunak, Juan Karlos Izagirre alkatearekin

BIKTIMEN FOROA

2015eko urriaren 8an

Hiriko Biktimen Foroa eratzea

Donostiako Udaletxeko Giza Eskubideen Batzordeak Biktimen Foroa abian jartzea erabaki zuen. Foro honek biktimen oroitza, aitortza eta erreparazio arloan aurrera eraman beharreko ekimenetan Udaletxea aholkatzea izango du xede nagusizat.

Eneko Goia Donostiako alkateak bultzatutako ekimenak, EAJ, PSE-EE, PP eta Irabazi udal taldeen babesaren izan zuten, eta EH Bildu abstentitu egin zen.

Giza Eskubideen Batzordeak onarturikoaren arabera, Foro honetan parte izateko aukera emango zaie biktimen senitartekoei, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Donostiako Udalarari luzatutako "Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak" dokumentuaren lehen atalean jasotzen diren biktimen senitartekoei.

Egoitza Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen etxean kokatuko da.



OROIMENAREN EGUNA

2015eko azaroaren 10ean

Oroimenaren eguna

Udalbatzak, Bilduko zinegotziek izan ezik, eta hainbat herritarrek parte hartu zuten Memoriaren Eguna zela-eta biktimak omentzeko egindako ekitaldian.

Ekitaldian, Madrilgo alkate Manuela Carmenak parte hartu zuen. Carmenak goiz horretan hitzaldia egin zuen Deustuko Unibertsitatean Deustu Forum Gipuzkoak antolatutako "Elkarrekin bizitzeko hiriak" eztabaida gunean.



DIRU LAGUNTZAK


DIRU LAGUNTZAK

Bakea, Giza Eskubideak eta oroimen historikoa

Giza Eskubideen Bulegoak 38.500 euro banatu zituen irabazi asmorik gabeko 25 entitate artean.

Diru laguntzen helburua da Donostian bertan edo Donostiarentzat interesgarri gerta daitezkeen beste esparru batzuetan bakearen, elkarbizitzaren, oroimen historikoa berreskuratzearen eta giza eskubideen aldeko hedapen, eraikitze, sustatze eta defentsa proiektuak eta jarduerak gauzatzea.





BESTELAKO
EKINTZAK, BAKEAREN
ETXEAN

BESTELAKO EKINTZAK, BAKEAREN ETXEAN



Hamabostaldiaren Kontzertua Dúo Cassadó. Damián Martínez, biolontxelo, Marta Moll, pianoa



Etixerat, prentsaurrekoa

BESTELAKO EKINTZAK, BAKEAREN ETXEAN



Reiki Maratoia, Stop San Filippo



Galdutako objektuak dokumentalaren aurkezpena

BESTELAKO EKINTZAK, BAKEAREN ETXEAN



Nazioarteko arkitektoen taldea



Hitzaldia: Genocidio en Euskal Herria. Nabarralde
Elkarteak antolatuta